

**2a. erreminta. ELKARBIZITZA IKASTETXEAN: GIZA ESKUBIDEEI BEGIRA.**

*FAMILIAK*

Talde txikia. *Hasiera batean, emakumeen eta gizonen emaitzak banaturik bildu nahi baditugu, erreminta hau bitan erabiliko dugu taldeak mistoak direnean, behin emakumeenak jartzeko eta bestean gizonenak. Taldeak segregatuak badira, dagokiona beteko dugu*

Emakume-kopurua: ...

Gizon-kopurua: ...

GIZA ESKUBIDEAK IKASTETXEAN	Errespetatzen da	IKUSTEN DA ONDOKO EGOERA EDO EKINTZETAN
1. Ikastetxea gune segurua da eta bertan elkarrekin bizi garenok ondo tratatzen dugu elkar.	BAI	
	EZ	
2. Nire alabak edo semeak arazorik duenean, zentroan laguntza eska dezake. Une oro badu laguntza bilatzeko nora jo.	BAI	
	EZ	
3. Zentroan norberaren gauza pertsonalak errespetatzen dira eta ez da inoren familiari buruz txantxarrik egiten.	BAI	
	EZ	
4. Pentsatzen dudana eta uste dudana lasaitasunez esan dezaket askatasun osoz ikastetxean.	BAI	
	EZ	

*Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)*

5. Familiek ikastetxean dagozkigun eremuetan erabakiak hartzen parte hartzen dugu. Gure ekarpenak kontuan hartzen dira. Era berean, zentroa osatzen duten kide guztiek parte hartzen dute antolakuntzan eta dagozkien erabakietan zein orokorretan parte hartzen dute.	BAI	
	EZ	
6. Ikastetxeko jardueretan, harremanetan eta erabiltzen ditugun materialetan emakumeak zein gizonak aurkitzen ditugu mota orotako zereginetan eta lanpostuetan, etnia desberdinekoak, herri, jatorri sozial, orientazio sexual, gaitasun fisiko nahiz psikiko desberdineko pertsonak... familia mota ezberdinak... Pertsona guztiok aintzat hartuak gara, denek badugu gure lekua eta errespetatuak sentitzen gara.	BAI	
	EZ	
7. Gure eskubideak eta betebeharrak ezagutzen ditugu (norberak berekikoak zein hezkuntza-komunitatekideekikoak) Geure betebeharrak aurrera eramateak ondo sentiarazten gaitu eta geure eskubideak bete daitezzen eskatzeko unean segurtasuna eman ere bai.	BAI	
	EZ	

**Talde txikiaren oharrak:**

.....

.....

.....

**Talde txikiaren ondorioak:**

.....

.....

.....